

Real Madriden aurka erakutsitako joko bikaina ez da inondik inora agertu Iruñean; Osasunak, ezer berezirik egin gabe, hiru puntuak poltsikoratu ditu.

Halakoa da Lehen Maila

Osasuna 3
Reala 1

■ **Osasuna.** Ricardo, Nelson, Lolo, Flaño, Monreal, Juanfran, Puñal, Soriano (Ruper, 88. min.), Camuñas, Pandiani (Vadocz, 82. min.) eta Lekic (Aranda, 62. min.).
■ **Reala.** Bravo, De la Bella, Mikel Gonzalez, Ansotegi, Carlos Martinez, Elustondo (Llorente, 60. min.), Bergara, Zurutuza, Sutil (Griezmann, 60. min.), Xabi Prieto eta Tamudo.
■ **Epailea.** Velasco Carvallo.
■ **Gora-beherak.** Ligako laugarren jardunaldia, Sadar estadioan.

Golak

■ **0-1. Tamudo (16. min.)**. Bravok luze, Puñalek zelai erdian kale, eta Tamudok hutsa aprobetxatu eta Ricardoren aurrean ez du barkatzen.
■ **1-1. Pandiani (37. min.)**. Monrealen erdiraketa bikaina eta Pandiani, buruz, sareetara.
■ **2-1. Camuñas (42. min.)**. Juanfranen barneratzea, baloia erdiratzen du eta Camuñasek, barrura.
■ **3-1. Aranda (74. min.)**. Aranda, buruz, angelorik gabe.

ARITZ SORZABAL

Reala esku hutsik itzuli zen atzo Iruñetik, partida askar baten ostean, Osasunaren aurka galdu ondoren. Gorritxoek ez zuten gauza gehiegirik egin, baina beste partidetan golarekiko izan ez zuten zehaztasuna izan zuten eta hiru puntuak poltsikoratu zituzten.

Osasuna indartsu ateratzen zela, baloiaren jabetza hartuta, Realaren areara gerturatu nahian. Bigarren minuturako, kormer bati esker, aukera ederra izan zuen Flaño, baina bere burukada gora joan zen. Camuñas izan zen hurrengo saiatzen, baina minutuak aurrera joan ahala hasierako grina galtzen joan zen etxeko taldea. Are eta gehiago Realak, bere lehen aukeran, 0-1eko jarri zuenean.

Bravok luze ateratzen ondoren, eta Flaño huts egin eta gero, baloia



Xabi Prietok, bere taldekideek bezala, ez zuen zortzerik izan. GORKA BRAVO

Tamudoren hanketara iritsi zen. Aurrelari txuri-urdinak ez zion opariari muzin egin eta jokalariek handien lasaitasunarekin Ricardoren irteera gaingiditu zuten.

Bost minututan

Hortik aurrera, jokoarekin baino, bihotzarekin aurrera egiten saiatu zen Osasuna. Eta ahalegina ondo irten zitzaion. Camuñas zen ideiak garbien zituenak, baita Monreal ere. Bi hauek izan ziren, hain zuzen ere, markagailuari buelta emateko orduan giltzarri nagusiak.

37. minutuan, Monrealen erdiraketa bikain bati esker etorri zen gorritxoaren berdinketa. Pandianik, buruz, sareetara eraman zuen baloia. Tamudok minutu batzuk le-

henago frogatu bezala, errokerok zaharrak ez direla inoiz desagertzen erakutsi zuen uruguaitarrak.

Gol horrek konfiantza eman zion Osasunari, denboraldian lortutako lehena baitzen. Hala, Camuñas agertu zen berriro, Juanfranen barneratze dotorea aprobetxatuz, baloia sareetara bidali baitzuen atsedendiaeren atarian. Bost minututan ezerean geratu zuen Tamudorengola, Realak partida kontrolpean zuenean.

Bigarren zatia geratzen zen. Realak dena eman zuen berdintzeko, baina ez zuen asmatu, Griezmann eta Llorente zelairatu arren. Osasunak, ordea, eguna zuen. Hala, partida erabaki zuen 74. minutuan, Arandaren gol bati esker.



Richard Oribe eta Ion Areitio kirolariak omendu zituzten Aldundiak. E.Z.

Aymerich: «Bere entrenatzailea izateaz harro nago»

Igeriketa » Richard Oribe omendu du Aldundiak munduko txapelduna izateagatik 4x50 libre modalitatean.

garaileei garaikur eta txapel bana oparitu zizkieten, eskerrak eman eta zoriontzeko keinu gisa.

Pozik egoteko modukoa

«Guztatzat ohikoa da kirolari gipuzkoarrei omenaldi xume baina bihotzetik ateratakoak egitea. Maiz egiten ditugu halakoak eta poztekoa da, puntako kirolariak ditugula esan nahi baitu», azaldu zuen Galdosek.

Richard Oribe eskerrak eman zituen, baina hitz egiteko zailtasunak dituen, Javier Aymerich bere entrenatzaileak hartu zuen biengatik hitza. «Aldundiari eta familiari eskerrak eman nahi dizkiot, laguntzen duen familiarik gabe ez baitago kirolaririk. Denboraldi zabala eta gogorra izan da aurtengoa, hiru hitzordu garrantzitsuetan parte hartu du eta munduko marka berriak hautsi ditu», gogorazi zuen entrenatzaileak. Gainera, guztiz esker oneko hitzak izan zituen Oriberentzat, euren artean ongi moldatzen direnaren seinale: «Oso lan-gile fina da eta bere entrenatzailea izateaz harro nago».

ESTITXU ZABALA

Sekulako denboraldia osatu du Richard Oribe eta merezitako omenaldia egin zioten Aldundiko arduradunek, atzo goizean. Oribe antigatarrak eta Ion Areitio hondarribiarra omendu zituzten, biak ere munduko txapeldunak izan baitira. Zehazki, Holandan jokaturako Elbarrien Munduko Txapelketan bost domina irabazi ditu Oribe, urrezko bat (4x50 libre), zilarrezko hiru eta brontzezko beste bat. Areitio, berriz, trialsin txapelduna izan da.

Markel Olano ahaldu nagusiak eta Iñaki Galdos Kirol diputuak egin zieten ongi etorria kirolariei egoitzaren sarreran. Ondoren, aurrekoa dantzatu zuten dantzari batek txistuen doinuak, Oroigarrien banaketa, berriz, aretoan egin zuten. Bi

txokoa
h

Lezo BTT bizikleta martxa

2 dortsal

ditu Irutxuloko Hitzak harpidedunen artean zozketatzeko

Irailaren 26an

Goizeko 09:30ean, Lezoko Gurutze Santuaren plazan

Deitu eta parte hartu!

lezo
BTT
2010
09/26

